

♦ Estatuko %2ko inflazio tasa gainditu egin du Hegoaldeak

Iaz %2,5 igo zen KPI Nafarroan eta Bizkaian, %2,1 Araban, eta %1,9 Gipuzkoan → 15

politika

■ **Ajuria Eneko Ituna**  
Carlos Garaikoetxea: «Bake prozesurako adostasuna bilatzea dagokio Itunari» → 6

■ **ETAK Donostiako Gizarte Segurantzaren jarritako lehergailua indargabetu du Ertzaintzak** → 7

gizartea

■ **Denon Eskola**  
Sare publikoko guraso elkarteek konfederazio batean bildu nahi dute → 10

nazioartea

■ **Aljeriak erabaki du Europako Batasunaren batzordea onartzea** → 20

kirola

■ **Alaves**  
Denboraldia amaitu ondoren joango da Serrano Espanyol taldera → 25

kultura

■ **Pedro Maria Otaño bertsolariaren omenez hainbat ekitaldi egingo dira egunotan** → 29

■ **'Guernica' lekuz aldatzeko arazo teknikorik ez dago** → 31

## Elkarrizketaren aurkako idatzia onartu du Europako Parlamentuak

PPren ekimenak haserrea eragin du EAJn: «Ez da leiala Ajuria Eneko Itunarekin»

■ EUROPAKO PARLAMENTUAK Jose Ignacio Iruretagoiena zinegotziaren hilketa gaitzetsi du, eta horrelako atentatuekin ETAK euskal gizartearen eta Espainia osoan Zuzenbide Estatua apurtzeko helburua duela na-

barmendu du. Idatzi berean, «ekintza kriminala lagundu, ahalbidetu, babestu, bultzatu eta egiten dutenekin elkarrizketa baztertzea» onartu du Europarlamentuak. PPK bultzatutako ekimenaren puntu horrek ha-

serrea eragin du EAJn. Josu Jon Imazek adierazi duenez, «PPk aurkeztu testuan, baketzea lortzeko bideei buruzko jarrera alderdikoia ageri da, Ajuria Eneko Itunaren letra eta izpirituaren aurkakoa dena». → 6

JOSEBA OLALDE



## Iruzurra ukatu egin dute Osakidetzako goi kargu ohiek

■ SALAK auzia baliogabetu zezan defentsak aurkeztu zituen eskaera guztiak gaitzetsi ondoren, atzo hasi zen Gasteizen Osakidetzako iruzurraren inguruko auzia. Mario Gonzalezek, iruzurra egin zenean Osakidetzako zuzendari nagusi zenak, fiskalari deklaratu zion

«pentsaezina» dela azterketak zuzentzeko diseinua iruzurra egin ahal izateko asmatzea. Pedro Perez Torres kudeaketa zuzendari ohiak ere iruzurrik ez zela egon azaldu zuen. Marcos Merinok, berriak, esan zuen ez zuela lehiaketaren barne prozeduraren berririk.

→ 5

## Eki Eslavonia eskuratu eta lurralde batasuna lortu du Kroaziak

NBEk boterea kroaziarren esku utzi zuen atzo

■ EKI ESLAVONIA mendean hartu zuen Serbiako Armadak 1991. urtean, Krajina Errepublikari Serbiarra sortzean, eta azken bi urteetan Nazio Batuen Erakundeak izan du hango boterea. Atzo, baina, NBEk Kroaziaren mendean utzi zuen Eki Eslavoniako agintea, eta lurralde batasuna berreskuratu zuten kroaziarrek. Orain arazoa ihes joan ziren 80.000 kroaziarrek non kokatu izango da. → 19



Dirulaguntzak ukatuz UPNko gobernuak «ito» egin nahi duela salatu du EHNEK

■ Afiliatuen izen-abizenak ez emateagatik, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak kendu dizkio EHNEri. Hori «legearen eta askatasun sindikalaren kontrakoa» dela salatu du EHNEK. → 16